

Gure enpresaren funtsezko jarduera inklusio arazoak konpontzea da, hots, gure gizartean dauden bazterketa arazoak ekiditeko jarduera humanitarioa aurrera eramatea.

Gure enpresak egin behar duen ekintzarik garrantzitsuena gizartea heztea da, kontzientzia hartzea eta inklusioa bermatzea. Hori lortzeko, haur eta familiekin jarduera desberdinak proposatu eta landuko ditugu. Inklusioa lantzeko, oso garrantzitsua litzateke haurrekin irteerak egitea. Irteera horien bidez, haurrek beraien artean elkarreragiten dute, jolasten dute, hitz egiten dute, barre egiten dute, une jakin batean elkarri lagun diezaiokete, objektuak, janaria... parteka ditzakete, eta haiei buruz hitz egin dezakete, haien bizimoduari buruz, bitxikeriei buruz, gustuei buruz... Zentroan, hainbat jarduera ezberdin egin daitezke haiek elkar ezagutzeko eta inklusioa bermatzeko, adibidez, torreak eginez, txoko desberdinak jarriz...

Horrez gain, oso garrantzitsua izango da gure enpresaren webgunea eta sare sozialak kudeatzeko, mantentzeko eta sustatzeko jarduerak ere egitea, dena eguneratuta edukitzeko.

Aisialdi jarduerak planifikatzea eta ordutegiak betetzea izango da funtsezkoa ere. Haurrekin zein familiekin harremanetan egoteko eta harreman osasuntsu bat eraikitzeko denborak ondo neurtu beharko ditugu. Eguneroko ekintzak planifikatu, behar diren materialak eskuratu, baliabideak eta espazioak antolatu... Honekin batera, irteera edo ekintza bereziren bat egonez gero egun bat lehenago, familiei beharrezko informazioa helarazi (materialak...).

Hasieran aipatutako egiteko garrantzitsuenak lortzeko, honako jarduera batzuk egingo ditugu:

EKINTZAK	IRTEERAK
<p>Ipuin kontaketa</p> <ul style="list-style-type: none">- Gela eroso batean, lurzoruan zein aulkietan esertzeko aukera.- Hainbat motatako ipuinak kontatuko zaizkie, gai desberdinak landuz. <p>Eskulanak</p> <ul style="list-style-type: none">- Material desberdinak ezagutu eta	<p>Igerilekua</p> <ul style="list-style-type: none">- Aniztasun motorea duten haurrak baditugu, ekintza hau egiteko igerileku egoki bat topatuko dugu eta igerilekuko monitore baten laguntza beharko dugu haurrekin ibiltzeko. <p>Ludoteka</p> <ul style="list-style-type: none">- Durangoko liburutegiko ludoteka

esperimentatzeko aukera izango dute, nahi duten eskulana sortuz.

- Talde desberdinetan proiektu bezala gai bat landuko da, eta horrekin zer ikusia duen eskulan bat sortzea.

Jolasak

- Aniztasun funtzionala daukaten haurrentzat egokitutako jolasak egitea, non edozeinek jolasteko aukera izango duen.

Bilerak

- Gurasoekin harremana izateko, haurren garapenari buruz hitz egiteko, haien barneak husteko... leku segurua eta konfiantzazkoa sortu nahi dugu bulegoan.

alokatu edo erreserba bat egin bertako espazioa erabiltzeko

- Ipuin kontaketa, antzerkiak, filmak...

Herria ezagutu

- Bertan dauden espazio desberdinak ikertu: parkeak, natura espazioak (errekak, baso txikiak, baserri inguruak...)
- Parkeetan jolasak egin, ginkanak antolatu...

Kanpamentua

- Ikasturte amaieran, ekainean, irteera bat egin eta 3-4 gau igaro etxetik kanpo lo eginez, udaleku txiki modura. Bertan, ekintza desberdinak egiteaz gain (adibidez ginkanak), bertako lekua ezagutzea.